

ELGOIBARKO HIZKERA

Tesiaren egilea: Jesus Mari Makazaga Eizagirre

Unibertsitatea: Euskal Herriko Unibertsitatea

Saila: Euskal Filologia

Tesi-zuzendaria: Pello Salaburu Etxeberria

Tesiaren laburpena:

Elgoibarko hizkeraren azterketa-lan monografikoa da doktoretza-tesi hau. Sarreran, historikoki eta geografikoki kokatzen da Elgoibarko hizkera, eta gainerako kapituluetan, hizkuntzaren maila guztietan dituen ezaugarriak aztertzen dira kapitulu banatan:

1. KAPITULUA: FONOLOGIA. Elgoibarko euskararen sistema fonologikoa ezaugarritzen da atal honetan: zein den fonemen erreperitorioa eta zer arau fonologiko eta bilakabide fonetiko nagusi gertatzen diren deskribatzen da. Kapitulu guztietan bezala, adibide ugariarekin ilustratu dira hemen emandako arauak eta bilakabideak.

2. KAPITULUA: IZENAREN MORFOLOGIA. Izen-sintagmaren ingurukoak jaso eta aztertu dira kapitulu honetan: kasu-markek eta postposizioek zer forma hartzen duten (taulak eskaintzen dira), eta sintaxiaren eta semantikaren aldetik zer erabilera duten; izen-sintagmaren arloan Elgoibarren aipagarriak diren kontu batzuk (genero-bereizketa, sinkretismoa, plural hurbila, *-an* espletiboa...), zenbait zenbatzaile berezi, eta, amaitzeko, hitz-sorkuntzako jakingarriak: eratorpen-atzizki nagusiak zein diren eta hitz elkartu ugarienen azterketa bat.

3. KAPITULUA: ADITZAREN MORFOLOGIA. Aditzaren jokia bildu da kapitulu honetan: aditz jokatu gabeeak eta jokatuak (aditz laguntzaileak eta aditz trinkoek) zer forma izaten duten (taulak eskaintzen dira hemen ere), adizkietan zer morfema mota erabiltzen diren, eta aditzaren arloan aipagarriak diren erabilera batzuk: zenbait aditzen erabilera bereziak eta zenbait aditz-lokuzio berezi.

4. KAPITULUA: SINTAXIA. Elgoibarko hizkerako egitura konplexuen gramatika bat osatu nahi izan da hemen; ez da beharbada dialektologiarako arlo emankorregia, baina enfatizatu dira dialektologiaren aldetik pertinateak izan daitezkeen ezaugarriak. Perpaus juntatuak hasieran, mendeko perpausak (*Euskal Gramatika. Lehen Urratsak V, VI* eta bidean den *VII*-ko sailkapena erabili dira) eta, amaitzeko, testu-mailako lotura edo lokailuak (Gramatika batzordeak *EGLU III*-n aztertu zituenak). Azalpenez eta erabilera berezietan gain, adibide dezente eman dira hemen ere, argi gera dadin egitura bakoitzaren erabilera.

5. KAPITULUA: ESAERAK, ESAPIDEAK eta INTERJEKZIOAK. Gai honi arreta berezia eskaini zaio, iruditurik baliagarriak izan daitezkeela gazteen belaunaldientzat kapitulu honetan egindako azterketak eta sailkapenak: ahozko hizkeraren

ezaugarri nagusiak aztertu dira, indargalduz doazkigunak; atal nagusian, testu libreetatik eta galdekizunetatik jasotako esaerak eta esapide eginak bildu dira; horiez gain, elkarrizketetan gertatzen diren interjekzioak, harridura-perpauzak eta egitura adierazgarriak bildu dira, eta semantikaren eta sintaxiaren arabera nolabait sailkatu; halaber, ahazkoan hain erabiliak diren zenbait ezaugarri aztertu dira: elipsiak, onomatopeiak, errepikapenak, ezezko perpausen ugaritasuna, hitz-ordena bereziak...

6. HIZTEGIA. Deba ibarrean, bateko eta besteko euskara ezaugarritzeko, hiztegi garrantzitsuak egin dira. Tradizio horri jarraitu nahian, Elgoibarko eta inguru hurbileko hitz bereizgarriak bildu dira: Elgoibar dialektologikoki kokatzeko pertinentiak izan daitezkeen lexemak eta aldaerak (mendebaleko hizkeretara egiten dutenak eta erdialdekoetara egiten dutenak); horiez gain, hala ere, zaharkituak geratzen ari diren hitzak ere jaso dira, azkenean elgoibartar hiztunaren hiztegi txiki bat osatzeraino (ia 2.500 sarrera dituen); ahalegin berezia egin da txorien, belarren, loreen eta nekazaritza munduko izenekin.

7. TESTUAK. Elgoibarko euskararen erakusgarri batzuk eman dira hemen; atal orekatua izatea zen helburua: Elgoibarko auzo desberdinetakoak, emakumezkoenak eta gizonezkoenak, zuka eta hika ari diren hiztunen jarduna... Elgoibarko euskara erakustea du lehenbiziko helburu (euskarari eta hizkerari buruzko testuak ere badira, oharmenezko dialektologiak eskatutakoaren haritik), baina, bide batez, galtzen ari zaigun garai bateko mundu-ikuskeraren berri ere eman nahi dute testuok: nola bizi ziren gure guraso eta aitona-amonak, nola pentsatzen zuten, nola sentitzen... Horregatik, haien bizitzak markatu zituzten sasoiak, gertaeren eta errituen gaineko testuak jaso dira: umetako bizimodua, gaztaroa, neskametza, soldadutza, gerra, ezkontza, lan-kontuak, feriak, azokak, jolasak, erromeriak...

8. ONDORIOAK. Amaitzeko, Elgoibarko euskara dialektologikoki kokatzeko ahalegin bat ere egin da; jakina den bezala, mendebaleko hizkeren ezaugarri asko ditu Elgoibarkoak, baina erdialdeko ezaugarrien nahasketa ere badu: hainbat ezaugarri, hitz eta aldaeraren isoglosak igarotzen dira Elgoibartik gertu, mendebaldera eta ekialdera, eta isoglosa horietako asko identifikatu nahi izan dira (*ere/bere, erosi dot/det, eman de(u)tsat/diot, bisitan etorri jata/zata, amantzat/amandako, amagaz/amakin, estazio/estaziño, legez/bezela/moduan, lako/bezelako...*). Kokapen geografiko bertsuan daude Mendaro eta Mutriku, eta hizkera hauekin dituen antzekotasunak eta desberdintasunak ere jaso dira. Koldo Zuazok (1999, 2000) eta Zuazo-Badihardugu elkarteak (2002) eginak dituzte inguru honetan azterketa batzuk, eta horiek abiapuntutzat hartuz, datu gehiago eskaini nahi izan dira doktoretza-tesi honetan.